

GERNIKAKO ARBOLARI. ¹



EUSKAL-ERRIA DERITZAION BILBOOKO ELKARGO FUERO-ZALEARI DONEKITUA.

ITZ-AZALKAIA.

Euskal-izkuntza maite ez duten umeak,
Ez nuke esango dirala fuero-zaleak.

¡O Apoloren anierusak!²
Ainbeste egin zaidazute:
Piska bateko mendi loretsu
Oriek utzi itzazute:
Nere liracho moldakaitzari
Estutu egiozute
Urrezko kabill lasaiak; eta
Lagundutzera atozte.
Amoriozko su donetia
Biotzean det sentitu:
Ariñ atozte, soñu ederrak
Nai nituzke jo al-banu:
Arrigarrizko Aritz-illezkor
Baten omenak kantatu;
Aize-egoetan biraldu eta
Mundu guzian banatu.

¡O Aritz prestu paregabea!
Kantauriko goitargia:
Zure itzalpean beti nor-bere,
Libre zan Euskal-erria:
Doatsu eta zorioneko
Beti- alai gazteria;
Guzia zure inguruan zan
Pakea ta pozkeria.
Zure azpian egin ziraden
Lege zar arrigarriak,
Ibai ertzean urrungaz dauden
Usoak beziñ garbiak,
Maite zituzten mendi oetan
Arkitzen diran erriak,
Amak maitatzen dituzten gisa
Kabi-chuloko choriak.

(1) Estahermosa composicion, todavia inédita, es de las ultimas que escribió su autor, nuestro muy querido y malogrado amigo. (N. de la R.)

(2) Ninfas.

Zure oitura berdin gabeak.
Gaitzikabeak et' onak,
Malkarro latzak eta burkaitzak
Lur biurtzen dituztenak;
Euskal-errien alde biotzak
Moldatzen dizkigutenak,
Izandu ziran gordeak dauden
Liburu Santuen oñak.

Prenda aĩner ta zoragarriak
Etziran iñoiz izandu,
Orbela aizeak daraman gisa
Gaur egin ta bigar kendu;
Baizik irago arren eunkiak,
Nai gaberikan trukatu,
Gorde uramill furiatsutik
Eta biotzetik gurtu.

Baña ¡zér Lege, jakintsu eta
Zuzenak ¡milla aingerua!
¡Zenbat arrotzek, egin zizkien
Diosalak arritua!
¡Zenbat jakintsuk, zenban Erregek
Makurtu ere burua!
Zoraturikan etzan aspertzen
Zuei begira mundua.

Zure semeak, Ama euskara,
Danak berdiñak ziraden:
Etzuan iñork kazike jaunik
Ezagutu izan emen:
Libertadezko jaioterrizat
Mendi oek zeukazkiten;
Eta, libreak diran erriak
Nekez dira menderatzen.

Alper alperrik etortzen ziran
Atzerriak lur ontara,
Oju gerrari beldurtiak
Uztarria ezartzera;

Aberats, pobre, zar eta gaztek,
Aji egiñaz ¡¡aurrera!
Naiago zuten milla bider ill
Ez utzi sartzen echera.

Baña ¡ai! mingaiñ gaiztoak alcha
Zituzten salgaizta¹ beltzak,
Ore mordoak maiz alchatu oi
Dituzten gisa ekaitzak;
Eta illundu zure eguzkiren
Argia oen itzalak,
Ziruditela eskoba kirten
Gañean sorgiñ zitalak.

Aundinai. eta kutiziari
Leku emateagatik,
Donauslekiro² atzaparrakin
Artuta kucha santutik,
Bota zituzten zure Legeak,
Begirun piska gabarik,
Sabela burniz betea daukan
Mendi madarikatutik.

¡Zorigaiztoan Euskal-errian
Arkitzen zeran mendia!
¡Zu zera ainbeste umeren odol
Gaitzikabekoz bustia!
¡Zure erraietan arkitu zuten
Millaka semek obia!
¡Zure gañetik amildua da-
Gure zorion guzia!

¡Nola ordea, batek sinistu
Esker gaizto aĩn billauak?
¡Etzuten ezer balio izan
Euskal-erriko umantak,
Gau eta egun beti burruka
Egin zituzten azañak,
Irichi naian Españiari
Dimbreak eta omenak?

(1) Calumnia.—(2) Sacrilegamente

Nabas, Padura, Oran, Pabia,
 Itsas zabalai galdetu,
 Nola ziraden gure aurreko
 Guraso zarrak portatu;
 Nola zituzten etsai arroen
 Kate gogorrek zatitu,
 Eta betiko gure España
 Oen mendetik libratu.

¡O Gernikako Aritz maitea!

¿Non dira zure semeak?
 ¿Non dira zure azpian bildu
 Oi ziraden Batzarreak?
 ¿Non dira arbola tantaiak baño
 Gogorragoko umeak,
 Sekula ere arneguakin!
 Mingañik zikiñ gabeak?

¿Non dira mendi puntetan egon
 Oi ziran beiralariak,
 Euskal-errira zetozenean
 Arrano garailariak?
 ¿Non dira ainbeste odol iñuri
 Zuten euskaldun argiak,
 Aroko Lope, Diego eta
 Beste Jaun miragarriak?...

Mututu ziran; arkitzen dira
 Obi otzean etzanak:
 Ill ziraden, ill, Irnio eta
 Orreagako mutillak,
 Erromatarrak eta Erroldan
 Porrokatu zituztenak;
 Mundu guzian aín fama aundia
 Banatu izan zutenak.

Bakardadean zaituzte utzi,
 Bakardadean, Amacho,
 Zure umerik bikañenak ¡ai!
 Aspaldi ill ziradelako;

Bakardadean laja zaituzte,
 Zutaz aztu diralako;
 Zure umeak setatsu alkar
 Ikus nai ez dutelako...

Baña ¿ote da izango zure
 Bakardadea betiko?
 ¿Ez ote zaitzu buru gañeko
 Itzal oriek kenduko?

¿Ez ote dira, arkaitz gañetan
 Aotzaioak adituko,
 Eta Batzarre oroigarriak
 Berri berriro bilduko?

¿Ez da adituko Euskal-erriko
 Guraso prestuen itzik,
 Lege Santuak gordeak dauden
 Salak berriz irikirik?

¿Ez ote zera izango berriz
 Libre uztarria autsirik?
 ¡Ainbeste pena gogoratzean
 Otzikara senti det nik!...

Bai, Amacho, bai, itsuturikan
 Egon gerade gaurdaño:
 Oroitz Santuak zirikatirik,
 Ez gera lotan egongo:
 Zuri dizugun amorioak,
 Gaitu danok bat egingo;
 Eta zorion antziñakoak
 Dituzu berriz izango.

Ama batenak gera guziok,
 Ama beraren umeak,
 Zorigaiztoak menderaturik
 Gaukazkien senideak:
 izan gaitezen, egiaz, izan
 Geraden bañon obeak,
 Alkarturikan betiko napar
 Euskaldun fuero-zaleak.

(1) Con blasfemias.

Baña, barkatu, Ama maitea,
 Biotzetik etsaiaki,
 Jaunak barkatu zien bezela
 Ill zuten borreroaki,
 Zure burua zikindu gabe
 Ordaiñ gaiztoaz itsuski:
 Barka zaiezu, eta zerade
 Aundia izango beti.

Etorriko da egun berria
 Eguzki zillartsuakin,
 Zabaldutzeroa bere errañuak
 Emanai ugarirekin;
 Eta orduan, Aritz Santua,
 Gure poz aundiarekin,
 Apaindurikan agertuko da
 Lenagoko jazkaiakin.

OTAEGI-KO KLAUDIO-K.

LA AZUCENA MISTERIOSA.

TRADICION NABARRA QUE DEDICA EL AUTOR Á SU MUY QUERIDO Y
 RESPETABLE AMIGO DON JUAN CANCIO MENA.

V.

Es la noche del día de que venimos ocupándonos. Eugenia y Publio conversan en el bosque de los cipreses cabe la *Fuente del Olvido*. La azucena que regaló él á ella la noche anterior, y que ostenta prendida de sus rizos, resplandece más fresca y lozana que al desprenderse del tallo.

¡Y cómo no!... Era la imágen de sus amores que, casi moribundos, habian recibido un nuevo y misterioso gérmen de vida, nuevo y misterioso gérmen que recordaba no poco la mirada ardiente que se habian cambiado aquella misma mañana,

Su conversacion está llena de sentimiento.

—Si ser mi esposo quieres, dice Eugenia á Publio, si aspiras á ser dueño de mi corazon, necesario es que olvides tus falsas creencias y rindas adoracion al Dios Omnipotente.